



BARREN

TOKIKOM

www.barren.com

Bertokoari lekua



ikastolak

hezkuntza eraldatzen



Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 18tik 29ra

www.ikastola.eus



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

elgoibar@elgoibarikastola.eus

943 74 44 41



ikastolenelkartea

ALEX SEGADE

Ikaslea



Deskonektatu

telako hitzak entzuteari utzi diodanez, COVIDaren frenesi hartatik ihes egin dut, eta orain, askoz ere lasaiago nago. Denbora asko daramagu kontu honekin eta asko nekatuta gaude, komunikabideetan gai bera behin eta berriz entzuten dugulako.





Ez zait gustatu ikus-entzunezko komunikabideek, bereziki telebistak, nola tratatu duten pandemia hau. Askotan komunikabideek egoeraren ziurgabetasuna eta asperra sustatu baino ez dute egiten. Badakit garrantzitsua dela murrizketen edo dena delakoen berri ematea, baina hainbeste entzuteak, korona han korona hemen, ez du laguntzen egoera baikortasunez ikustea. Gainera, berri gehienetan jarrera eta datu txarrak azpi-

marratzen dituzte komunikabideek.

Kontuan izan behar dugu jarrera horiek salbuespenak direla eta orokorrean arauak oso ondo betetzen direla. Informatu behar dute, baina ez pandemiaren alde txarrak bakarrik. Hasieratik gaur egunera arte hobetu duguna nabarmena izan da. Biztanleriaren kontzientzia zioa zabalduago dago, martxoan eta apirillean baino test gehiago egiten dira, txertoa iritsi da... Gauza horiek behar bezala esaten ez diren sentipena dut.

Horregatik, irakurleei gomendatzen diet uzteko albisteak jarraitzeari gutxienez astebetez, egunerokotasunaz deskonektatzeko eta atsedeen bat hartzeko. Niri, behintzat, kontua normaltasun handiagorarekin hartzen eta egoera beste ikuspuntu batetik ikusten lagundu dit.

“Irakurleei gomendatzen diet uzteko albisteak jarraitzeari gutxienez astebetez, egunerokotasunaz deskonektatzeko eta atsedeen hartzeko”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Baskulazaren Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloea Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDALA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	---	---



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► LEKUKO BILA

Abuztuaren 8an istripu bat gertatu zen 634 errepidean, eta lekuko bila gabiltza. Moto batek gizonetako bat harrapatu zuen Txankakuako eta Sigmako zubien arteko errepide zatian. Gizona hurrak batzen ari zen harresiaren inguruan, errepide bazterrean, eta Eibarrentantz zihoan moto batek harrapatu egin zuen. Gizona ospitaleratu egin behar izan zuten, eta kolpeen eraginez ondorio larriak ditu. Haren familiakoak lekuko bila gabiltza, gertatutakoa argitzeko. Inork ezer ikusi bazuen, eskertuko genioke gurekin harremanetan jartzeko, ondorengo telefonora deituta: 628 115 677

L.B.

► OSASUNA, INGURUMENA ETA JUSTIZIA

GuraSOsek giza katea antolatu du larunbat honetarako, 12:00etan Donostian, *Osasuna, ingurumena eta justizia* lemapean. Azken egunotan Zubietako (Donostia) erraustegian izan eta Gura-

SOsek salatu duen hirugarren satea gertatu berritan egingo da giza katea.

Aldarri honi lotutako hiriburuko puntu sinbolikoak lotuko ditu giza kateak. Giza katearen bidez, erakundeek segurtasunarekiko, osasunarekiko eta ingurumenarekiko duten mespretxua salatuko da, eta eskari hori sinbolizatzen duten lau puntu egongo dira. Era berean justiziak dagokion legezketasun kontrola egin dezan eskatu nahi da.

Jende pilaketak saihesteko lau zatitan banatuko dute ibilbidea. Zati bakoitzean eskualde ezberdinetako herritarrek parte hartu dute. Bakoitzak dagokion kate zatian egon beharko du, mobilizazioa hasi baino 10 minutu lehenago, 11:50ean:

1. zatia: Andia-Diputazioa: Urola Kosta-Debabarrena

2. zatia: Diputazioa-Okendo/Askatasunaren hiribidea 5 (Bankoa) Debaioena-Goierri-Tolosaldea

3. zatia: Askatasunaren hiribidea, 5. zk., Santa Katalina zubia: Donostialdea.

4. zatia: Urumea-Kalkuta plaza: Oarsoalde-Bidasoa-Buruntzaldea

Animatu zaitezte, guztion osasuna jokoan dago eta!

A.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingariak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datoren eskutitzik argitaratuko



Pepi Astigarraga Iriondo

2021eko urtarrilaren 7an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA


Eugenio Intxausti Zubizarreta

2020ko urtarrilaren 13an hil zen, 83 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 24an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Otsailean Marten lurreratuko den NASAREN M2020 misioan parte hartu du Elgoibarko AVS enpresak

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak bisitan izan ziren astelehenean Added Value Systems (AVS) enpresan. AVS enpresakoak NASAREN M2020 misioan parte hartzen ari dira, eta ondo bidean, otsailaren 18an lurreratuko da misio hori Marten. AVS-k *Perseverance* izena duen Rober esplorazio espazialeko ibilgailuaren zazpi zatietatik bi diseinatu, probatu eta eraiki ditu: MEDA (*Mars Environmental Dynamics Analyzer*) tresnaren sentsoreak, zeinaren bidez haizearen abiadura eta norabidea, presio atmosferikoa, hezetasun erlatiboa, giro tenperatura eta eguzki erradiazioa neurtuko dituzten, eta SuperCam kalibratze sistema, kamera, laserra, eta espektometro bat erabiliz Marteko haitzen kimika urrutetik aztertzen duen instrumentua. Ustekaberik ezean, robotak V-541 Atlas zuritik askatu ondoren ekingo dio lanari. Guzti horregatik eta gehiagotatik, enpresen berrikuntzan egindako ahalegin irmo eta etengabearen AVS "enpresa eredugarria" dela esan zuen Markel Olano ahaldun nagusiak. Horregatik eta urtero fakturazioaren %30 bideratzen duelako enpresak zeregin horretara. Horren harria, I+G+Bren aldeko apustua indartzeko deia egin zien Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainei, pandemiak sortutako krisiari aurre egiteko eta modu horretan euren merkatuetan "aukera berriak" sortzeko.



NASA eta ESA espazio agentzien konfiantzazko enpresa

NASA agentziaren misio horretan parte hartzeari esker, planeta gorrira egingo duten hurrengo misiorako MSR (*Mars Sample Return*). "ondo posizionatua" dagoela esan zuten, bai aldundiko ordezkariak, bai eta enpresakoek ere. 2026an airetutako duten misio horretan laginak bilduko dituzte Marten, eta historian, lehenengo aldiz, Lurrera ekarriko dituzte, sakon aztertzeko. AVS fidagarritasun oso handiko sistema mekatronikoen garapenean espezializatuta dago. Sistema horiek muturreko baldintzetan funtzionatzen dute, eta horren ondorioz, NASAk konfiantza izan du eurengan tresna horiek diseinatzeko eskatzeko. Misio hori behar bezala gauzatzeko "funtsezko tresnak" dira. Izan ere, ibilgailuak oso baldintza gogorretan egin beharko du lan: lur idorrean, hauts ekaitez artean eta 0 azpiko 80 gradura arteko tenperaturetan. Era berean, misio horiei esker, indartu egin da AVS enpresak Europako Espazio Agentziak datozen urteetan ilargia esploratzeko dituen proiektuetan izango duen posizionamendua, agentzia horrek ere Marteko laginak Lurrera bueltan ekartzeko misioan parte hartuko baitu. AVS enpresaren eta ESAREN arteko lankidetzak duela urte batzuk hasi zen, asteroideen laginak biltzeko sistema diseinatu zutenean. Geroztik, hogeit hamar kontratu baino gehiago sinatu dituzte.

Autonomoentzako eta enpresa txikientzako aholkularitza zerbitzua

Autonomoiei eta enpresa txikiei laguntzeko aholkularitza-zerbitzua jarri du martxan Debegesa Debarbarreneko Garapen Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. COVID-19ak eragindako zailtasun ekonomikoak dituzten enpresei zuzenduta dago zerbitzua, eta garapen agentzietatik jakinarazi dutenez, modu pertsonalizatuan emango diete arreta.

Enpresen egungo egoera aztertzea, negozioaren diagnostikoa egitea, etorkizuneko urratsak finkatzea eta diru-laguntzen/laguntza-programen berri ematea da programa honen helburua. Aholkularitza programa honen lehen urratsa autonomoen edo enpresa txikien COVID-19aren ondorengoko egoera aztertzea izango da. Ebaluazioa egin ondoren, hobetzeko ekintza zehatzak identifikatuko dituzte, funtsezko atalak kontuan hartuta: besteak beste, finantzaketa edo bezero berriak topatzeko prozesua. Bestalde, etorkizuneko beharrak asetzeko eskuragai dauden dirulaguntzen eta laguntza programen inguruan informazioa emango dute. Zerbitzua doan emango dute. Interesa dutenek Debegesako Enpresa eta berrikuntza teknikariarekin jarri behar dira harremanetan, Ane Iturzetarekin. Bi bide daude horretarako: posta elektronikoz (ekintzaile@debegesa.eus) edota telefonoz (943 820 110). Apirila baino lehen egin behar da kontaktua.

Hil azkenera hasiko dira Elgoibarko Emakumeen Etxea izango dena egokitzen

Elgoibarko Udalak Arkhiru Arkitektoak herriko enpresari esleitu dio Elgoibarko Emakumeen Etxea hartuko duen gunea egokitzeko obra, eta jakinarazi dute hil amaiera aldera ekingo diotela haiek lanari. San



Frantzisko kaleko 21. zenbakian, lehen Gotzon Garate Udal Liburutegia egon zen lekuan, zabalduko dute. Liburutegiak izan zuen azaleraren erdia hartuko du espazio horrek, 150 metro koadro inguru, eta obra bera bi fasetan egingo dute. 83.400,44 euroko aurrekontua du proiektuak, eta urteko lehen seihilekoan bukatuta izatea nahi lukete. Emakumeen etxea herriko emakume elkarteen eta mugimendu feministaren aspaldiko eskaera dela gogora ekarri du Ane Beitia alkateak. Era berean, nabarmendu du berdintasuna lortzeko bidean beste pausoa bat dela espazio hori sortzea. Udalak Emakumeen kontseiluarekin eta herriko beste hainbat elkarte eta talderekin elkarlanean diseinatu du espazioa.

Harrizko eserlekuak eta lorontziak jarri dituzte Aita Agirre plazan



Aita Agirre plazan eta eraikinaren arkupeetan hainbat eserleku jarri ditu Elgoibarko Udalak, bai eta lorontzi batzuek ere. Gris kolorekoak dira eserleku berriak, harrizkoak, eta hainbat formatakoak.

Mendaroko Egile Mechanics enpresak hamabi langile kaleratu dituela salatatu du LAB sindikatuak

Hegazkigintza sektoreko krisiak Deba eskualdea ere kolpatu duela azaldu du LAB sindikatuak. Salatu dutenez, Mendaroko Egile Mechanics enpresak hamabi langile kaleratu zituen 2020ko abenduaren amaieran, aldi baterako enplegu espedientea (ABEE/ERTE) aplikatu ostean. LAB sindikatutik jakitera eman dutenez, kaleratze hauekin agerian geratu da patronalak ABEEak bezalako neurri koitunturalak zein kaleratzeak moduko tresna estrukturalak erabiltzeko dituela COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, "sektoreko etorkizuneko lan baldintzak kaskartzuz".

Eukaliptoari buruzko hitzaldia antolatu dute Mendaron hilaren 29rako

Arturo Elozegi, Euskal Herriko unibertsitateko zientzia eta teknologia fakultateko irakasle katedraduna, eta Aitor Onaindia, Baso elkarteko teknikaria, gonbidatu ditu Mendarora Udalak, eukaliptoaz hitz egiteko. Urtarrilaren 29an izango da hitzaldia, 18:00etan, San Agustin kulturgunean. Gonbidapena udaltxean eskatu behar da (943 033 282).

Orri markagailuen lehiaketa martxan da

Gotzon Garate Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu du. Aurtengorako gaia negua da, eta urtaro horrekin lotura duten irudiak aurkeztu beharko dira. Interesatuak urtarrilaren 29ra arteko epea dute parte hartzeko.

'Osasuna eta COVID-19a' hitzaldia emango dute urtarrilaren 29an Elgoibarren

Osasuna eta eskubideak elkarrekin antolatuta *Osasuna eta COVID-19* izenburuko hitzaldia izango da Elgoibarren gaur zortzi, urtarrilaren 29an, Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian, 18:00etan. "COVID-19 gaitzaren eraginez bizi ditugun garai zail hauen aurrean hiritarrok osasun erakunde ofizialetatik agintzen zaizkigun neurri debeku eta aholkuek gain, gure defentsak eta immunitate sistema sendotze aldera eskura dauzkagun aukerez hitz egingo dute hizlariak", zabaldu dute antolatzaileek. Hiru izango dira hizlariak: Juango Martinez Kirurgia orokorreko eta digestio aparatuko sendagilea; Ricardo Arriola, sendagile, homeopata eta akupunturan aditua; eta Silvana Huegun diestista. Sarrera doan izango da eta hizlaria nagusiki gaztekeraz izango dela aurreratu dute. Pandemia kontuengatik 25 lagun sartu ahal izango dira gehienez.

Naturari laguntzea irabazi asmo bakarra

Basoak lehengoratzeko ahaleginean dihardute Lurguia fundaziokoek eta egiteko horren barruan, Zirardamendin bertoko zuhaitz espezieak landatzera deitu zuten zapaturako. 40 bat lagun batu ziren deialdira. Orain arte, Bizkaian aritu izan dira batez ere, baina Gipuzkoan ere indarra hartzen ari dira pixkanaka. Euren bazkideen ekarpenekin, erakunde eta enprekin egindako hitzarmenekin eta administrazio publikoen unean uneko dirulaguntzekin finantzatzeko Lurguiaren proiektua eta laguntza publikoen mende ez egoteak beren independentzia zaintzen eta proiektuen egonkortasuna bermatzen laguntzen die. Informazio gehiagorako: lurguia.org. Bideoa ikusteko: barren.eus.

- ASIER ORBEA / AINARA ARGOITIA -



Lurguia fundaziokoek deialdira batu zirenetako boluntario batzuk aitzurtean, zuhaitz-landarak landatzen.

E lgoibartik Zirardamendira, Aiastia auzora, oinez igotzeko asmoa zuten izatez, baina azkenean, autoz egin zuten bidea. Oinetako egokiak eta lanerako jantziak eramateko eskatu zieten boluntarioei Lurguia fundaziokoek, ekimenaren sustatzaileek, eta halaxe agertu ziren 40 bat lagun, lanerako gertu. Herriko lagunetz gain, Eibartik, Sorluzetik, Azkoitiatik, Beasaindik eta Zumarragatik etorritakoak zeuden boluntarioen taldean. Zuhaitz landaketa batean parte hartzen zuten estreinako aldia zuten batzuek, baina baziren beterranoagoak ere. Zirardamendi baserri inguruan autoak laga, erremintak, arbola-landarak eta babesgarriak hartu eta abiatu ziren denak mendian gora. Eta hantxe, Zirardamendiko gailurretik gertu, Elgoibarrera ematen duen mendimaginean, ekin zioten lanari, lau laguneko taldetan banatuta. Otea eta sastraka bada inguruan, eta ez zitzairen erraza egin batetik bestera mugitzea, baina bi orduren bueltan 300 bat landara sartu zituzten, eguraldi ederra lagun.

Jon Hidalgo Lurguia fundazioko kideak eman zizkien azalpe-

nak boluntarioei, lanean hasterako. Hark azaldu zien, esaterako, sastrakarik ez egoteak erraztuko liekela lana, baina ez zela komenigarria kentzea, bestela higadura handiagoa sortuko luketelako eta gainera, inguru garbiago egonda animalia gehiago sartuko lirakeelako zuhaitz-landara gazteak jatera. Azaldu zuten, sasiak oso garrantzitsuak dira lurra lehengoratzeko. "Zuhaitzek, gainera, hazi ahala, itzal handiagoa egingo diete sasiei eta beren kabuz ere gutxiko dira". Dena den, bost bat urte barru, zuhaitzen ondoak garbituko dituztela aurreratu zuten.

Sastrakak babesera ere badira beraz zuhaitz gaztearen lehenengo bizi urteetan. Nolanahi ere, plastikozko babesgarriekin inguratu zituzten zapatuan, orkatzek-eta ez ditzaten kimuak jan. Hamarkada batzuk pasatu beharko dira Zirardamendiko basoak benetako baso itxura har dezan, baina zapatuan landatu zituzten haritzak, gurbitzak, makatzak, gerezi-ondoak, otso lizarrak eta gainerako espezie autoktonoak etorriko dira gorantz, eta urte gutxiren buruan, beste itxura bat izango du inguru horrek.

“Besteen zain egon gabe, ekintzara pasatu gara, eginez egiten delako bidea”

► **SERGIO GALLEGO** LURGAIA FUNDAZIOKO KIDEA

Lurguia fundazioko kidea da Sergio Gallego. 2002an sortu zuten Lurguia ekologista batzuek, ingurumenaren aldeko ekintza gizarte zibiletik gauzatzeko asmoz. Gaur egun, 400 bazkide inguru dira, eta bertoko basoak eta biodibertsitatea zaintzeko ari dira lanean. Euren egitekoen eta egiteko moduen berri eman zuten Gallegok zapatuan, Zirardamendin.

◆ Zerk bultzatuta etorri zarete zuhaitz landaketa hau egitera?

Lurguia fundazioak 18 bat urte daromatza halako ekimenak bultzatzen. Irabazi asmorik gabeko erakundea da gurea eta Urdaibai inguru da gure lan eremu nagusia, baina aspaldi honetan handik kanpora ere ari gara lanean. Hala, duela hilabete inguru, Zirardamendiko lur sail honen jabearekin egin genuen harremana. Lur sail hau eskaini zigun, baso atlantikoa, bertako basoa, sortzeko hemen. Lur hau utzi zigun, guk kudea genezan. Hala, zuhaitz landaketarako deialdia egin genuen guk eta Eibarko, Azkoitiko, Beasaingo, Zumarragako, Sorluzeko eta Elgoibarko hainbat lagun batu zaizkigu gaur, guztira 40 bat lagun. Eta denon artean 300 bat arbola-landara landatu ditugu. Hemen bertako espezieak



dira denak: haritzak, gurbitzak, makatzak, gerizi-ondoak, otso lizarrak... Eta ekimen honen bueltan, halakoetan beti egin ohi dugun bezala, Lurguia zer den ere azaldu diegu hurbildu zaizkigunei, bai eta zer, nola eta zertarako egiten dugun hau ere.

◆ Noizko aurreikusten duzue honek baso itxura hartzea?

Hemen benetako baso bat ikusteko 100 bat urte beharko ditugu, baina 2-3 urteren buruan beste itxura bat izango du honek, eta hamar bat urteren barruan, zuhaitz ederrak izango ditugu.

◆ Zenbat metro koadroko lur saila da?

Hamahiru bat hektareako saila da, baina, gaur, hektarea erdi batean aritugara lanean. Hektareako 600-650 landare sartzen ditugu normalean.

◆ Auzolanean ari zarete gaur. Hau da beti zuen lan egiteko modua?

Ez beti. Lekuaren eta daukagun diru kopuruaren arabera izaten da hori askotan. Finantziazio pribatua eta dirulaguntzak ere jaso izan ditugu, baina halakorik ez daukagunean, guk geuk egiten dugu ordaindu ezin dugun lan hori. Hala ere,



HARITZA



GURPITZA



MAKATZA



GEREZI-ONDOA



LIZARRA



“Laga egin dizkigu jabeak lur hauek guk kudeatzeko, baina gutako inork ez du etekin ekonomikorik aterako hemendik”

guretzat oso garrantzitsua da, bai, auzolanaren kultura sustatzea, horrek bidea ematen digulako dibulgazio eta kontzientziazio lan bat egiteko ere, eta konpromisoa hartzeraz ere behartzen duelako jendea. Izan ere, auzolanean egindako landaketa hauetan aukera izaten dugu lur-gaiak egiten duen lanaren berri emateko eta gure helburuak azaltzeko. Pinuak eta eukaliptoak moduko arbolek gure lurretan zer eragin duten azaltzeko eta gure alternatiba zein den azaltzeko ere baliatzen ditugu aukera hauek.

♦ **Zer motatako hitzarmena sinatu duzue lurjabearekin?**

Lagapen-hitzarmena. Baso autoktonoak berreskuratzeko eta zaintzeko kontserbazio-hitzarmena sinatu dugu lurjabearekin. Horrek zer esan nahi du? Jabetzan eman ordez, lur hau hainbat urtez erabiltzeko baimena eman digula jabeak guri. Guk kudeatuko ditugu lur hauek, baina kudeaketa biodibertsitatea mantentzeko eta basoa lehengoratzeko izango da beti, eta gutako inork ez du etekin ekonomikorik aterako hemendik; ez egurrik, ez onddorik, ez beste ezer.

♦ **Zer da, gaur, Lurgaia? Zein dimentsio hartu du?**

Lurgaia 500 hektarea inguru kudeatzen ditu gaur egun. Lur sail batzuk geuk erosi ditugu, eta beste batzuk laga egin dizkigute geuk kudeatzeko. Egitasmo nagusia Urdaibain daukagu martxan. Urdai-

bai Biosfera Erreserbako harizti misto handiena sortzen ari gara. Inguru hartan, Ibarrrurin, Muxikako udalerrian (Bizkaia), pinu eta eukalipto landaketa handiak egiten ari zirela ikusita, kezkatuta jo zuen hango familia batek guregan. Ez zuen bere etxe bueltan pinurik eta eukaliptorik nahi eta halaxe sinatu genuen gure lehenengo zaintza-akordioa, 2008an. Lur sail hari hektarea gehiago eman nahi dizkiogu eta horretarako abenduan *crowdfundig* edo finantzaketa kolektiborako kanpaina hasi genuen, 48 bat hektareako lurra erosteko. Basoa benetako basoa izan dadin, denbora eta sailak lurazalera jakin bat izatea behar dira eta gure helburua lortuz gero, laster 163 hektareako basoa izango dugu Undabason. Momentuan 105 bat hektareatan landatu ditugu bertoko arbolak, baina asmoa dudarik gabe, baso hori handitzen joatea da.

♦ **Duela 18 urte hasi zenuten proiektu hau. Zer balorazio egiten duzue?**

Oso pozik gaude. Normalean astero antolatzen ditugu gaur bezalako jardun-

diak eta jende berria batzen zaigu, baina ez gaur beste: gaur denek dute hemen estreinako aldia, eta horrek poza eman digu. Pozgarria da, era berean, bai Sorraluzen, bai Elgoibarren eta baita Eibarren ere, gure mendien egoeraz kezkatuta dagoen jende bat elkartu izana. Dena hain daukagu intentsifikatuta, ia-ia basorik ere ez daukagula Gipuzkoan eta Bizkaian. Protesta egitetik ekintzara pasatu ginen gu duela urte batzuk eta guretzako hau da bidea: ekintzara pasatzea. Jarraitu beharko dugu instituzioei euren politikak aldatzeko eskatzen, eta noizbait aldatu beharko dituzte arauak-eta, baina momentu hori iritsi zain egon gabe, lanari ekin diogu guk, iruditzen zaigulako eginez egiten dela bidea.

♦ **Eukaliptoaren inguruan bada kezka bazterretan. Zuek Bizkaitik zatozte eta zuen inguruan, hemengo aldean, eukalipto asko ikusten da aspalditik. Zer duzue esateko?**

Beharragatik landatzen dute batzuek eukaliptoak, baserriatik bizi direlako eta zer-bait behar dutelako, baina badira inertziaz, lurrari beti etekin bat atera nahi horregatik, eukaliptoak landatzen ari direnak. Belaunaldi aldaketa bat eman da, baina, eta gero eta jende gutxiago bizi da baserriatik. Askok oinordetzan jaso dituzte lurrak, baina kalean ateratzen dute bizimodua, baserrian bizi ala ez, eta horietako batzuk hasi dira euren buruei gal-

dezka zertarako behar dituzten lur horiek. Natura eta mendia gustuko dituen jendea izaten da normalean guregana gerturatzeko bere alea jarri nahi duen jendea. Etekin bat atera nahi izanda ere, nik ez nuke pinua edo eukaliptoaren alde egingo, ez eta hemen hainbeste ikusten den *cryptomeria japonicaren* alde ere.

Nik bertakoaren alde egingo nuke, bista dan, baina dena den, gure helburua beste bat da: biodibertsitatearen kontserbazioa eta natura-ondarearen kudeaketa sustatzea: espezieak, habitatak, lotutako prozesu ekologikoak eta paisaia.

♦ **Paisajea sano aldatu da gure inguru honetan. Zer ondorio izan du horrek?**

Pinu sail handiak bota dituzte lurjabeek, denak batera, eta horrek ekarri du batetik, egurraren prezioa dezentez merkatzea, eta bestetik, ingurumenean higadura larri bat eman izana. Mendian, makinaria astuna sartu dute, bide berriak egin behar izan dituzte pinuak ateratzeko, ibaiak basaz bete dira eta horrek ondorio ekologikoak eragin ditu.



ANTXON ALBERDI, Soraluzeko Baso Biziak talde administratibokoa

“Ez gaude lurrak ustiatzearen kontra, baina iruditzen zaigu naturari ere lekua utzi behar zaiola bere bidea egin dezan”

“Baso Biziak taldea sortu dugu Soraluzen Lurgaiak fundaziokoekin batera lan egiteko eta gure herrian ere bertako zuhaitzak landatzen hasteko. 87 bazkide gara momentuan taldean, eta hilean 5 euroko kuota ordaintzen dugu; 60 euro urtean. Diru horrekin lur sailen bat erosi nahiko genuke zuhaitz autoktonoak landatzeko,

baina ahaleginduko gara lurjabeekin lagapen-hitzarmenak lotzen ere. Ikusten ditugu gure inguruko mendiak nola dauden eta iruditzen zaigu inflexio-puntu batean gaudela eta erabaki behar dugula lurra esplotatzen segi edo egoera honi buelta ematen ahalegintzearen artean zer egin. Lurgaiakoei esaten duten bezala, gu ere ez gaude lurrak ustiatzearen kontra, baina iruditzen zaigu oreka bat egon behar dela eta naturari ere laga behar zaiola lekua bere bidea egin dezan. Eibarren eta Soraluzen eratu ditugu taldeak eta uste dut elgoibartarroi ere ondo etorriko litzaizuekela Baso Biziak sortzea, sare bat sortzeko eta instituzioei presioa egiteko”.

AITOR ARANBURU eta XABIER AIZPURU, boluntarioak

“Egiteko erraza da zuhaitzak landatzea, eta gure aletxoak jartzen ari gara zerbait ondo egiteko bidean”

“Eukalipto landaketarekin sortzen ari zen arazoaren berri izan genuenean batu ginen gu proiektura. Bideo pare bat ikusi genituen, sartu ginen Lurgaiak fundazioaren webgunera zer zen eta nola lan egiten zuten ikustera, batu ginen gero interesa agertu genuen lagun batzuk eta gure lehenengo pausoa landaketa hauetan parte hartzea izan da. Ekimen interesgarria iruditzen zaigu. Egiteko erraza, eta gure aletxoak jartzen ari gara zerbait ondo egiteko bidean. Goiz-pasa ederrak pasatzen ditugu gainera arbolak landatzen eta pozik gaude. Beasaindarrak gara gu biok, nahiz gaur egun Ordizian eta Lazkaon bizi garen. Hirugarren lagun bat ere etortzekoa zen gaur gurekin Beasaindik, baina eremu gorrian sartu dira, eta ezin izan du etorri”.



IKER ALDAZABAL (Soraluzeko alkatea) RAMON GALLASTEGI (Ingurumen batzordeburua)

“Landaketak zelan egiten dituzten ikastera etorri gara, Soraluzen ere gauza bera egiten hasi nahi genukeelako”

“Ramon eta biok Soraluzetik etorri gara gaur hona, Lurgaiak fundaziokoekin batera zuhaitz landaketa honetan parte hartzera. Arbola landaketak zelan egiten dituzten ikastera etorri gara, Soraluzen ere gauza bera egiten hasi nahiko genukeelako etorkizunean, Lurgaiakoei eta herriko boluntario taldearekin. Eguraldi ederra daukagu gaur, eta goiza aprobeztatzen eta ingurumenaren alde nola egin ikasten ari gara”.



Garaipen bat, porrot bat eta berdinketa bat eskuratu dituzte Sanloko senior taldeek asteburuan

Gabonetako atsedenaldia eta gero, lehiara itzuli dira Sanloko senior mailako taldeak. Alcortak zein Gaurvek etxean jokatu zituzten urteko lehen partidak. Senior gizonezkoen Alcortak taldeak gainera, bi partida jokatu zituen asteburuan, 48 orduko tartean, eta gero beste partida bat eguaztenean, Atarrabian. Urtarrilaren 15ean Olaizagan jokatu zuten lehen partidaren garaipen garrantzitsua eskuratu zuten elgoibartarrak, Huescako Avefor taldearen aurka. Partida hori laugarren jardunaldian jokatu behar zuten, joan den urrian, baina bertan behera laga zuten koronabirus kasuengatik. Defentsak erasoari nagusitu zitzaizkion partida estu baten ostean, Alcortak azken segunduetan lortu zuen garaipena, 20-19ko emaitzarekin. Hala, aurkari zuzen bati gailendu zitzaion; eta,aldi berean, Lehen Nazional mailako sailkapenean hiru postu aurreratu zituzten. Domekan, berriz, Tolosa taldearen aurka jokatu zuten Alcortak, eta 16-27 galdu zuten. Lehen zatia parekatua izan zen, eta hiru goleko errenta (7-10) eraman zuten tolosarrek aldageletara. Alcortako jokalaririk aipagarrienak izaten ari ziren



bi jokalarik min hartu izana, baina, erabakigarria izan zen partidaren bilakaeraren. "Egoera aldakorra izaten ari da denboraldi honetan, baina taldea ilusioz gainezka dago eta ezina ekinez eskurtzen dela badakigu", esan dute Sanlotik Alcortaren denboraldiaz. Ia atsedenik hartzeko astirik gabe, eguaztenean, jokatu zuten ligako beste partida bat, hori ere pandemiagatik atzeratutakoa. Atarrabian jokatu zuten Beti-Onak taldearen aurka. Gaurve Asesoresek ere, Sanloko senior emakumezkoen taldeak, etxean jokatuko zuten zapatuan, eta 21na berdindu zuten Barañaingo Lagunak taldearen aurkako

neurketan. Parez-pare aritu ziren bi taldeak partida guztian, atsedenaldira ere 13nako berdinketarekin ailegatu baitziren. "Erasoan zein defentsan ondo hasi genuen partida, eta minutuak aurrera joan ahala defentsan ondo moldatzen jarraitu genuen arren, erasoan gehiago kostatu zitzaigun", esan dute taldeko arduradunek. Bigarren zatia lehenengoaren ildo beretik joan zen, bi taldeak erasoan baino hobeto aritu ziren defentsan, eta etxeko taldeak ez zuten asmatu azken minutuetan markagailuan izan zuten aldea kudeatzen. Azkenean, puntu bat lortuta hasi du Gaurvek Ligako bigarren itzulia.

Eskola Kiroleko entrenamenduak hasi dituzte Elgoibarren



Eskola Kiroleko entrenamenduak berriro hasia baimendu du Jaurlaritzak eremu gorrian ez dauden herrietan, eta Elgoibarko Eskola Kiroleko eguaztenean, urtarrilaren 20an, ekin zion berriro bere jardunari. Gehienez ere sei lagunekoa taldeetan antolatuta ibili beharko dute. Taldea beti pertsona berek osatuko dute, eta ezingo dira aldagelak erabili. Hori bai, intzidentzia-tasa 500etik gorakoa den herrietan bertan behera laga beharko dira Eskola Kiroleko jarduerak.



▶ PELLO REPARAZ

ZETAK TALDEKO KANTARIA

Vendetta taldean hamar urtez aritu ostean, Zetak taldea sortu zuen Pello Reparazek (Arbizu, 1990) 2019an. Musika elektronikoa du oinarrian, eta dagoeneko bi disko kaleratu dituzte. 'Zetak' izan zen taldearen estreinako lana, eta 'Zeinen ederra izango den' diskoa izan da bigarrena, konfinamenduaren gogorrean ekoiztutakoa. Taldea sortu eta berehala kultur ikuskizunak eten egin zituzten, eta bertan behera laga zituzten hamaika emanaldi, baina orain aretoetara itzuli dira, eta bihar Elgoibarren izango dira. Formato akustikoan eskainiko dute kontzertua, 17:00etatik aurrera, Herriko Antzokian. Sarrerak agortuta daude.

- AINHOA ANDONEGI-

“Sormena da gure jainkosa eta beste bide bat hartzera eraman gintuen”

♦ **2019ko amaiera aldera sortu zenuten Zetak taldea, eta bete-betean harrapatu zintuzten koronabirusaren pandemiak. Zein eragin izan du zuengan?**

Uste dut jakin dugula pandemiaren olatua surfeatzen, nola-bait. 2020rako kontzertu asko genituen lotuta eta bat-batean dena bertan behera geratu zen. Apur bat egoera baretu zenean 15 kontzertu iragarri genituen eta denetarako sarrerak agortuta daude.

♦ **Zein motako publikoari begira sortu zenuten Zetak?**

Adin desberdinetako jendeak gozatzeko moduko proiektua dela esango nuke. Are gehiago, Vendettaren garaitik gaur egunera ditugun jarraitzaileen batez besteko adina igo egin dela ohartu gara. Hasieran zalantzak genituen Vendettaren jarraitzaileekin zer gertatuko zen, baina datuek erakusten digute horietako asko Zetaken jarraitzaile ere bihurtu direla. Niretzat aldaketa naturala izan dena, badirudi beste askorentzat ere hala izan dela eta hori poztekoa da. Oso eskertua nago.

◆ Zer esan nahi du Zetak izenak?

Idatzi nituen lehen abestiak pertsonai ilunetatik eta egoera nahiko traumatikoetatik sortu ziren, eta horiek deskribatzerako orduan Zetak hitza suertatu zen. Nor dira Zetak? Bukaerarako uzten diren horiek; nolabait esateko, ahaztuak, alboratuak... Horiei egiten die erreferentzia.

◆ Bi lan dituzue merkatuan, eta bigarrena konfinamenduaren gogorrean sortua, gainera: 'Zeinen ederra izango den'. Konfinamendua bera inspirazio izan zen?

Agian bai. 2019an sortu genuen lehen diskoa, eta 2020an disko hori han eta hemen aurkezteko asmoa geneukan, baina bete-betean etorri zen egoera berezi hau eta planak erabat aldatu behar izan genituen. Zetak oso proiektu aktiboa da, eta sormenari dagokionez oso bizirik gaudenez, letrak idazteari ekin nion konfinamenduan. Covid egoera honi lotutako hausnarketen emaitza izan da *Zeinen ederra izango den* lana. Lehen diskoan pertsonak ziren gehiago protagonista eta saiatu izan naiz haien azalean jarri eta haien sentipenak bizitzen. Nahiko istorio traumatikoak izan ziren batzuk, eta esperientzia kañeroa izan zen. Bigarren lana askoz introspektiboagoa da eta gehiago enfokatu dut nire bizipenetatik.

◆ Vendettarekin hamar urteko ibilbidea egin zenuen eta gorenean zegoenean erabaki zenuten amaiera ematea. Hala izan behar zuen?

Bai; azken batean sortzaileak gara eta sortze prozesuak eramaten gaituen bitartekari behar dugula sinesten dut. Sormena da gure jainkosa eta sormenak beste bide bat segitzera eramaten gaituen. Oso urte ederak izan ziren Vendettarekin bizi izan genituenak, eta bai, onean geundenean utzi genuen, eta, bai, hala izan behar zuen.

◆ Ska doinuetatik, musika elektronikora. Aldaketa ausarta izan dela esango al zenuke?

Sormenak ireki digun bideari jarraitu baino ez dugu egin. Azken urteetan musika elektronikoarekin harreman handia neukan entzule eta kontsumitzaile moduan, eta alor horretan esperimintatu nahi nuen. Vendetta amaitu zenean paper zuri baten aurrean jarri eta bide horri jarraitu nion. Oso pozik eta eroso sentitzen naiz. Aldaketa potentia izan den arren, aldaketa naturala izan dela uste dut.

◆ 17 urte besterik ez zenituela sortu zenuten Vendetta. Laburbilduko diguzu apur bat honaino iritsi arte izan duzun musika ibilbidea?

6 bat urterekin hasi nintzen Etxarriko musika eskolan eta 8 urterekin tronboia ikasten hasi nintzen. 12 urterekin igo nintzen estreinako taula gainera Altsasuko Gaztetxean, eta ordutik kolaborazio desberdinak egiten hasi nintzen, gauza pila bat ikasten eta nire denboraren gehiena musikari dedikatzen. 17 urterekin hasi nintzen Vendettan, eta horrek eramanez ninduen ordura arte pasioa zena nire lanbide bilakatzea.

“Nire unibertsitatea izan da Vendetta, eta ez bakarrik musikari dagokionez. Alor pertsonalean ere bai”

◆ Distantziatik begiratuta, zer izan da Vendetta zuretzat?

Nire unibertsitatea izan da, eta ez bakarrik musikari dagokionez. Alor pertsonalean ere oso aberasgarria izan da. Taldekideek euren jakintza guztia konpartitu zuten nirekin, nik baino gehiago zekiten-eta. Hilko naizen arte, nire bizitzako urterik garrantzitsuenetarikoak izan dira Vendettakoak.

◆ Vendetta amaitu zenean, argi zeneukan zein izango zen zure hurrengo pausoa?

Sortze prozesua bakarkakoa izan zen. Lehenengo diskoa sortu nuen, eta ondoren, taldea. Sortze prozesua berezia da beti, eta nire ustez ezin dugu pentsatu soilik taula gainera igoko diren pertsonengan. Adibidez Iratxe Reparaz arte zuzendaria da, Joseba Razkin beti nire alboan dago, Artzai Iraurgi... oso garrantzitsuak izan dira proiektuan, eta gero, jakina, Leire Colomo, Gorka Pastor eta Iban Larreburu bezalako musikariek lan egiteak beste dimentsio bat ematen du. Baina sortze prozesua dena izan da berria, eta ez da erraza izan.

◆ Irakaskuntza ikasketak ere badituzu, eta umeekin baloreak lantzeko proiektua ere martxan daukazu. Zertan datza?

Ikaragarri gustatzen zait umeekin lan egitea. Etxarriko eskolan aritu nintzen lanean, baina aldi berean musikan ere bannenbilen, eta iritsi zen une bat musikak denbora asko kentzen zidana eta irakaskuntza utzi behar izan nuen. Pena handia eman zidan, eta erabaki nuen hezkuntzarekiko neukan konpromiso hori beste modu batean lantzea. Hortik sortu nuen *Baloreak* proiektua. Giza balioak haurrekin jorratzeko proiektua da, eta harrera oso ona izan zuen. Harro nago egindako lanaz.

◆ Elgoibarko kontzertua formatu akustikoan izango da. Zer eskainiko duzue?

◆ Elgoibarko kontzertua formatu akustikoan izango da. Zer eskainiko duzue?

Egoera berezi honetan bi motako saiok eskaintzen ari gara: leku batzuetan formatu elektrikoan aritzen gara ekipo guztiarekin, eta beste batzuetan, akustikoan. Kasu honetan taula gainean Gorka piano-jolea eta biok arituko gara, baina lantaldeko kide gehiago ere etorriko dira. Oso serio hartzen dugu formatu akustikoa ere, ez da bata bestea baino garrantzitsuagoa. Formatu akustikoa oso aproposa da ezagutzeko abesti bakoitzaren atzean zer dagoen, nolabait esateko, abesti bakoitzaren ardatza eta bizkarrezurra zein diren ezagutzeko. Kontzertura doazenei eskatuko nieke jarrera irekiarekin joateko. Abestiek bidaia bat egingo dugu eta esango nieke joan daitezela abesti bakoitzaren atzean dagoen hori ezagutzeko jarrerarekin. Eskerrak eman nahi dizkiet kontzertura joango direnei, eta sarrerarik gabe geratu direnei esan nahi diet topatuko dugula bidean elkar, eta izango dutela aurrerantz ere Zetak ikusteko aukera.

San Joseren irudi berria egin du Arturo Andrade eskultoreak eta eguaztenean jarri zuen berak Morkaikon

Arturo Andrade eskultore elgoibartarra Morkaiko Mendizale taldearentzat egindako brontzeko jaiotzari San Joseren irudia falta zitzaiola jabetu ziren Morkaikoraino igo ziren hainbat herritar. Abuztuan igarri zuten haren falta. Tristuraz hartu zuen berria eskultoreak, eta inguruetan bila aritu zela aitortu du, figura aurkituko zuen esperantzaz. Baina irudia inon agertzen ez zela ikusita, berria egitea erabaki zuen. Sortu du pieza eta Andradek berak jarri zuen eguaztenean zegokion lekuan, Morkaikon, jaiotzako gainerako piezen ondoan.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots gaur, Herriko Antzokian

Amaren Intxaurrak antzezlanaren aurkeztuko dute gaur Herriko Antzokian Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Heriotza du ardatz proiektuak. Naturak heriotza ulertzen lagundu die Pirritx, Porrotx eta Marimototsi, azken batean, bizitzaren parte delako heriotza ere. Marimototsen ama Loreto hil ondoren landatutako intxaurrondoak lehenengo intxaurra ematen duen unean hasten da istorioa, eta hortik abiatuko da emaldia. Bi saio eskainiko dituzte, 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarrena. Sarrerak agortuta daude.

Elgoibarko baserrietako bizimodua, ohiturak eta lanak izango da 2022ko egutegirako argazki lehiaketako gaia

Elgoibarko Udalak zehaztu du 2022ko egutegia osatzeko argazki lehiaketaren gaia: Elgoibarko baserrietako bizimodua, ohiturak eta lanak. Antolatzaileen helburua da landa-eremuaren errealitatearen ezagutza sustatzea, baserriarren lanetan eta landa-eremuko ohituretan arreta jarrita. Argazkiak aurkezteko azken eguna 2021eko urriaren 7a izango da; eta lanak Aita Agirre kulturgunean edo euskara@elgoibar.eus helbide elektronikoan aurkeztu ahal izango dira. Partaide bakoitzak, gehienez ere, sei argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina, gehienez ere, pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dira. Elgoibarko Udaleko eta Ongarri argazkilari elkarteko ordezkariak osaturiko epaimahaiak hamabi argazki aukeratuko ditu egutegi handirako, eta beste argazki bat, egutegi txikian jartzeko, eta Txan-kakua merkataria elkarteko dendetan gastatzeko 80 euroko bonuarekin sarituko dute aukeratutako argazki bakoitza.



San Antonetako zigilu erakusketan parte hartu dutenei eskerrak emango dizkiete bihar, erakusketaren itxiera ekitaldian

Filatelia elkarten Euskal Federazioak urteko lehen batzarra egingo du bihar, 11:00etatik aurrera, Kultur Etxean, eta horren ostean, 12:30ean hasiko dute zigilu erakusketako itxiera ekitaldia. Aurten Julen Zabaletari eta Koldo Lizarralderi eskaini diote erakusketa, eta, batetik, haien senideei omenaldi txiki bat egiteko baliatuko dute biharkoa, eta bestetik, erakusketan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko. Aurtengo erakusketan 85 bilduma jarri dituzte ikusgai.



'Antonio Gaztañetaren bidaia' aurkeztuko du Musbika Ensemblek hilaren 31n



Musikaren sentsibilizazio eta difusiorako sortutako proiektua da Musbika. Musika klasikoa eta antzinako musika pertsona orengana iristeko dauden oztopoak gainditzeko asmoz, berritasunez hornitu dute proiektua. Elur Arrieta elgoibartarra da Musbika Ensembleko musikarietako bat. 2016ko abenduan estreinatu zuten taldea Elgoibarren, San Bartolome parrokiaren mendeurrenean, eta ordutik hainbat egitasmo berri dituzte eskuartean, esaterako *Antonio Gaztañetaren bidaia*. Iazko martxoan aurkeztu behar zuten obra hau Elgoibarren, baina koronabirusaren eraginez bertan behera geratu zen emanaldia, eta datorren urtarrilaren 31n taularatuko dute. Euskal Herriko itsas-gizon garrantzitsua izan zen Antonio Gaztañeta (Mutriku, 1656-1728), eta Musbika Ensemblek bere itsasontzian bidaiatzeko aukera eskainiko digu, musikaren bidez. 12:30ean izango da emanaldia.

'Aladdin', San Agustin kulturgunean

Mendaroko Zubigazte elkarteak antolatuta, *Aladdin* filma emango dute domekan, San Agustin kulturgunean, 17:00etan.

675. urteurreneko logotipo lehiaketa

Elgoibarko Udalak jakinarazi du 675. urteurreneko logotipo lehiaketan parte hartu zuten herritarrek dagoneko jaso ditzaketela pendrive-ak, Herriarren Arreta Zerbitzuan.

Kalejiran irten ziren txistulariak San Anton Egunean



Udal Txistulari Taldeak diana berezia prestatu zuen San Anton Egunerako, eta iaizko Trinitate jaietan egin zuten moduan, hiru taldetan banatuta irten ziren kalejiran. 9:00etan batu ziren Kalegoen plazan, eta handik abiatuta, herriko kale eta auzo guztiak bisitatu zituzten.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile ariazko prest, bai eta orduka lan egiteko ere, baita asteburuetan ere
☎ 688 735 551

Neska euskalduna LH eta DBH mailako haurrei partikularrak emateko prest.
☎ 687 729 418

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz
☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Etxeetan garbiketa lanak ere egingo nituzke, orduka. ☎ 690 134 485

Garbiketa lanak nahiz zaintza lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz, eta mendeko pertsonen zaintzarako ziurtagiria daukat.
☎ 626 490 986

Haurrak zainduko nituzke arratsaldeetan. Euskalduna naiz.
☎ 688 624 315

Neska euskalduna eskaintzen da pertsona edadetuak zaintzeko.
☎ 617 571 210

Asteburuan lan egiteko prest nago, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Etxeko garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.
☎ 631 342 098

Eskaerak
Umea goizez eskolara eramateko pertsona bat behar dut. 8:30ak aldera.
☎ 650 095 932

GARAJEAK.....
Garaje itxia alokatzen dut San Roke auzoan, kiroldegitik gertu.
☎ 679 851 185

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin, Kalamua kalean.
☎ 943 531 131

Garaje itxia alokatzen dut Lekuederren.
☎ 660 042 159

ETXEBIZITZAK.....
Alokairuan edo etxe konpartituan bizitzeko pisu baten bila nabil Elgoibarren (heldua eta umea).
☎ 632 139 635

BESTELAKOAK.....
Abuztuaren 8an moto batek gizonezko bat harrapatu zuen Txankakuako eta Sigmako zubien arteko errepidean. Gertatutakoa argitzeko lekuko bila gabiltza.
☎ 628 115 677

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 6€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 5€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Euzko Administratzaileen Sarakako Kontakaria</p> <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jabeen azken batzarrean ez zen akordiorik lortu komunitateari dagokion gai batean. Jakin nahi nuke jabeen batzarrean gehiengorik lortzen ez denean posible den gai-zerrendako puntu berarekin beste batzar batera deitzea eta, hala bada, deialdian gutxieneko eperen bat errespetatu behar den.</p> <p>Legeak ez du debekurik ezartzen ildo horretan, eta ez du epe jakin bat igarotzea eskatzen gai bat beste jabeekideen batzar batean eztabaidatzeko eta bozkatzeko eskaera berriro aurkezteko. Egia esan, ezin da debekua hitz egin; izan ere, jabeen batzarrek iritzia alda dezake jabeen informazio berri edo hoberearen ondorioz edo aurreko bozketan kontuan hartutako inguruabarrak aldatzearen ondorioz, bozketa horretan ez baitzen inolako akordiorik lortu.</p> <p>Legeak ez ditu behartzen jabeekideak ekitate-judiziora jotzera adostasunik lortu ezin bada, baina horretarako ahalmena ematen die. Beraz, baliteke mekanismo horretara ez jotzea eta akordio bat lortzeko ohiko zein ezohiko beste batzar batera deitzea akordioa lortzeko.</p> <p>Ondorioa: Kontua ez da lortutako akordio lotesleak aldatzea, bai zik eta jabeen arteko akordiorik ez dagoenean ekitea. Beraz, akordioa ondorengo beste batzar batean hartzen bada, azkenean lortutako Komunitatearen borondatea babestu behar da. Beraz, esku-hartze judiziala jabeekideek benetako borondate komuna lortzeko ezintasuna duten kasuetarako baino ez da erreserbatzen.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Zorionak gure etxeko berritsuari! 3 urte potolo bete zenituen atzo eta ederki ospatu genuen! Muxu handi bat, **Beñat**, etxekoen eta, bereziki, Aneren partez!

Zorionak, **Eneko**, urtarrilaren 27an 8 urte beteko dituzulako. Muxu bat laguneri eta etxeko guztion partez. Ospatu ondo-ondo!

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



**Elgoibarko haurreskola
HAZI eta HEZI**



HAURRESKOLAK

www.haurreskolak.net

Urtean 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiak doan sartu ahal izango dira.

Haurreskolan aldi berean ume bat baino gehiago edukita, kuota bakar bat ordainduko da.



Deitu eta informa zaitez!

943 742 141

24 DOMEKA

17:00 Zinea: 'Aladdin'. Mendaroko San Agustin kulturgunean, Zubigaztek antolatuta.

25 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: 'Elikadura kontzientea; ondo maitatu zure burua'. Dinamizatzailea, Loredi Salegi. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan.

27 EGUAZTENA

16:30 Ipuin kontalaria: Lupe Lekuona. LH1eko ikasleentzat. Liburutegian.

17:15 Ipuin kontalaria: Lupe Lekuona. LH2ko eta LH3ko ikasleentzat. Liburutegian.

19:00 Epeletan Literatura Tailerra: 'Dendaostekoak', Uxue Alberdi. Go-tzon Garate Udal Liburutegiak antolatuta, Liburutegian bertan.

29 BARIKUA

18:00 Eukaliptoiei buruzko hitzaldia, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Hitzlariak: Arturo Elozegi EHUko zientzia eta teknologia fakultateko irakasle katedraduna eta Aitor Onaindia Baso elkarteko teknikaria. Gonbidapena behar da eta udaletxean eskatu behar da. Telefonoa: 943 033 282.

18:00 Hitzaldia: 'Osasuna eta COVID19-a'. Hitzlariak: Juanjo Martinez, kirurgia orokorra eta digestio aparatuko sendagilea; Ricardo Arriola, mediku, homeopata eta akupuntura aditua eta Silvana Huegun, dietista. Aita Agirreko areto nagusian, doan.

19:00 Bideo foruma: 'Mujeres del siglo XX'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Hasta el cielo'
23 zapatua: 19:00
24 domeka: 19:00
25 astelehena: 19:00



'Los Croods: una nueva era'
24 domeka: 16:30

SAN ANTON JAIAK

22 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Herriko Antzokian.

23 ZAPATUA

11:00 Filatelia elkarteetako Euskal Federazioaren batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13:00 Zigilu erakusketako partaide eta laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia. Kultur Etxeko sotoan.

17:00 Zetak taldearen kontzertua, Herriko Antzokian.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

22 BARIKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	29 BARIKUA
Egunez Arriola	Egunez * Fernandez Garitaonandia	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



MERKEALDIA ETXKO EHUNGINTZANI!

Izarak, edredoiak, ohazalak, nordikoak, mantak...



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



GREMIOEN GIDA

Arozlegiak
Erreformak
Igeltseritza
Pintura
Lelhoak
Iturgintza
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilatan

21 €ren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusia.

4.885 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

4.885
ale astero

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturagunea, 3. J. edk
20870 ELGOIBAR



EXTRA ASTEA

LT-50VU3000 LED 50 JVC TELEBISTA



359 €

- 4k
- Smart TV
- HDR 10
- A+ Energia-klasea



19,90 €tik geroztu
produktu bat erostezagatik
3 hilabeteko
Spotify Premium
doan

PIMILAR

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 961 628
www.fisio-mas.com

RPS 67/10

RPS 183/12

Uzuri

optika audio


Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192




Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bállen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404



RPS 171/12
Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053



RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



RPS 271/12
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

GERTU

Gestora de Cooperativas

Iriondo Eraikina

Pedro Mugurutza, 2



AZKEN ETXEBIZITZAK!!



- Elgoibarko erdigunean.
- 10 etxebizitza 3 logelakoak guztiz kanpokoak.
- Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.

Eraikitzen:

BANTTON BILBAO
GRUPO

Informazio gehiago

☎ 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - www.gertugestora.com